


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,6 jaitsi dira 2021eko otsailean aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearekin alderatuta (2021eko otsaila 2020ko otsailaren aldean), kostuak % 0,4 igo dira

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,6 jaitsi da 2021eko otsailean, aurreko hilaren aldean. Urte arteko terminoetan, kostuak % 0,4 igo dira, Eustatek landutako datuen arabera.

Aurreko hilarekin alderatuta, lehengaien kostuak % 0,7 jaitsi dira, eta eskulanaren kostuak ez du aldaketarik izan (% 0,0).



Otsailean, Etxegintzaren azpisektoreak % 0,6ko hil arteko jaitsiera izan du bere lehengaien kostuan, eta Obra Zibilaren azpisektoreak % 1,3koa. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 0,4 igo dira, eta Obra Zibilekoak, berriz, % 2,4 jaitsi.

Sektoreak kontsumituriko lehengaien prezioei dagokienez, 2021eko otsailean 2020ko otsailaren aldean hazkunderik handienak izan dituztenen artean nabarmentzekoak dira *Metalurgia* (% 6,5), *Material elektronikoa* (% 5,7) eta *Material elektrikoa* (% 2,4) sektoreenak. Aldiz, prezioek behera egin dute sektore hauetan: *Petrolioa fintzea* (% 4,6ko

jaitsiera), *Mineral ez-metalezkoak* (% 4,5 behera) eta *Energia elektrikoa eta gasa* (% 2,1 behera).

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea.
Aldakuntzatasak(p). 2021ko otsaila

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	107,4	-0,6	0,4
Eraikinak	107,6	-0,4	0,8
Obra zibila	106,5	-1,0	-1,4
LEHENGAI	106,5	-0,7	-0,1
Eraikinak	106,8	-0,6	0,4
Obra zibila	105,3	-1,3	-2,4
LAN-ESKUA	110,2	0,0	1,9

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62